

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 15ean hartutako erabakiaren laburpena: Vitoria-Gasteizko udalerrian nekazaritzako produktu ekologikoa produzitu eta banatzeko sektorean enplegua sortzeko laguntzen deialdia eta oinarriak onestea 2026. urterako

BDNS(Identif.): 908844.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/908844>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehena. Onuradunak

Nekazaritza-ustategien titularrak diren enpresa pribatuak, edozein forma juridikoa dutela ere, eta irabazi-asmorik gabeko entitateak nekazaritza-ekologiako ekoizpen-jarduera garatzen dutenak, egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen badute, eta/edo diruz lagundu daitezkeen jarduerak zuzenean Vitoria-Gasteizko udalerrian egiten badituzte. Horrez gain, eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik balio osoz eratuta egon behar dira, nekazaritza-jardueraren arabera Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta emanda, eta laguntza hau eskatu aurretik inskribatuta egon behar dira Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustategien Erregistroan (REA) edo Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintzak Ustategien Erregistroan (REGA). Horrez gain, eskabidea tramitatzekeko prozesu osoan JEZn izena emanda egon behar dute; enpresa txiki izateko eskakizunak eskabidea aurkeztean den unean, hots: 50 enplegatutik baino gutxiago eta 10 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra izatea; eta aurretik adierazitako betekizunen bat betetzen ez duten enpresek nagusiki ez lotzea edo partaidetza ez izatea. Egunean izan behar dituzte betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak. Eta hala badagokio, ekoizpen ekologikoaren erregistroetan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Eta nekazaritza-ekologiako ekoizpen-jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteek kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan inskribatuta egotea.

Berariaz baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita elkarte edo lanbide jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar).

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizen nekazaritzako produktu ekologikoa produzitu eta banatzeko sektorean enplegua sortzeko laguntza ekonomikoak konkurrentzia sinplearen bidez emateko baldintzak ezartzea.

Diruz lagundu daitezkeen ekintzak eta gastuak bi ildotan banatzen dira:

1. NUEn (Nekazaritzako Ustategien Erregistroa) inskribatutako enpresek Vitoria-Gasteizko udalerriko lantokietan pertsonak kontratatzea nekazaritza-lanak egiteko, lanaldi osorako edo partzialerako (gutxienez lanaldiaren ehuneko 50) eta kontratuaren gutxienezko iraupena 3 hilabetekoa izanik.

Kontratu bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gehieneko denbora sei hilabetekoa izango da. Diruz lagundu ahal izango dira 2025eko abenduaren 16tik 2026ko ekainaren 30era bitartean sinatzen diren kontratuak, biak barne (soldatak eta Gizarte Segurantzaren enpresa-kuota).

Gehienez ere hiru laguntza emango zaizkio enpresa/entitate bakoitzari.

2. 2025eko abenduaren 16tik 2026ko irailaren 15era bitarteko aldiari (bi egun horiek barne) dagozkion inbertsioak joko dira dirulaguntzaren xede izan daitezkeen gastutzat -ekoizpen ekologikoaren ereduaren arabera lan egiten duten enpresenak edo ekoizpen eredu konbentzionalean jarduten dutelarik ekologikora birmoldatzeko prozesua hasi duten enpresenak-, zalantzarik gabe egokitzen zaizkiolarik diruz lagundutako jardueraren izaerari, eta kontzeptu hauetakoren bati dagozkiolarik: nekazaritzako makinak, lanabesak eta tresnak erostea, osagarriak barne; ekoizpen ekologikorako beharrezkoak diren instalazioak prestatzea eta finkak egokitzea (berotegiak, biltegiak, artzain elektrikoa, putzuak, hesiak, etab.); ureztatze-sistema eraginkorrak ezartzea eta automatizatzea; nekazaritza-teknologia berritzaileak txertatzea (sentsoreak, droneak, doitasunezko nekazaritza, etab.); nekazaritza-ustategien jarduerarekin lotutako tresna digitalak eta programa espezifikoak erostea, enpresa kudeatzeko, ekoizpena kontrolatzeko, merkaturatzeko, etab.; nekazaritzako eta abeltzaintzako lurrak edo eraikinak erostea edo alokatzea nekazaritzako ustategirako; laborantza agroekologikoko teknika berriekin lotutako ikerketa-proiektuak; prestakuntza- eta gaikuntza-gastuak (praktika agroekologikoei, birsortze-teknikei eta ziurtapen ekologikoari buruzko ikastaroen matrikulak eta/edo enpresa-kudeaketako, marketineko eta nekazaritza-produktu ekologikoak merkaturatzeko prestakuntza); ekoizpen agroekologikoarekin lotutako araudiak betetzeko aholkularitza, nahiz kudeaketarako, nahiz produkziarako; nekazaritza ekologikoko enpresa bat eratzeak eragindako gastuak (negozio-plana egiteko aholkularitza, eraketa-gastuak eta notariotza-gastuak...) eta nekazaritza ekologikoko kooperatibak sortzeko eta nekazaritza ekologikoko negozioen eta kontsumitzaileen arteko lankidetzak sortzeko aholkularitza; kotizazio-kuotak Gizarte Segurantzako nekazaritzako autonomoentzako sistema berezian (SETA/RETA): Autonomo eta hilabete bakoitzeko 100,00 euro, eta gehienez ere 1.200,00 euro; proiektua abian jartzeko animaliak erostea; tokiko merkatuetan, azoketan eta sustapen-ekitaldietan parte hartzeko gastuak (udal-tasak izan ezik), zuzenean merkaturatzeko kanalak sortzekoak -offline zein online (salmenta-plataformak), produktu agroekologikoen marketineko eta brandingeko estrategiak diseinatzekoak; egiaztatutako entitateek egiten dituzten ziurtapen-gastuak; nekazaritzako ustategien ondorengotza-kudeaketak; nekazaritzako aseguruak izenpetzea.

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorriari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko maiatzaren 15ean, onetsi egin zituen Vitoria-Gasteizko udalerrian nekazaritzako produktu ekologikoa produzitu eta banatzeko sektorean enplegua sortzeko laguntzen deialdi publikoa eta oinarriak, 2026. urterako.

Deialdia zein oinarriak udalaren web-orrian daude, ikusi nahi izanez gero (www.vitoria-gasteiz.org), eta baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honek 75.000,00 euroko zuzkidura du, 2026rako onetsitako udal aurrekontuan erabilgarri dagoen 0821.4314.47141 partidaren kontura (Nekazaritza Ekologikoko Sektore Emergenteentzako Enplegu Plana).

Konkurrentzia sinplea izango da laguntza hauek emateko prozedura.

Enpresa eta urte bakoitzeko dossier bakarra izapidetuko da.

Aurkezten den proiektuak diruz laguntzeko moduko 1.000,00 euroko inbertsioa izan beharko du gutxienez.

Dirulaguntzaren ehunekoa egindako gastuaren ehuneko 80 izango da, eta enpresa bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 9.000,00 eurokoa izango da kontratazio ildoan, eta 15.000,00 eurokoa inbertsio ildoan (gehienez 24.000,00 euro enpresako).

2026ko urriaren 15a baino lehen behar bezala justifikatuta dauden ordainketek bakarrik jaso ahalko dute dirulaguntza.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunetik 2026ko irailaren 15era arte (egun hori barne).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 15a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ